



ETORKINEN INTEGRAZIO SOZIOLINGUISTIKOA: DISKURTSOEN LANKETA

Gasteiz

2024/04/23

OHARRA

Dokumentu honetan bildu dira Soziolinguistika Klusterrak antolatutako *Etorkinen integrazio soziolinguistikoa; diskurtsoaren lanketa* izeneko tailerrean landutako ideiak. (Soziolinguistika Jardunaldia, Gasteiz, 2024/04/23)

Dokumentuaren atalak:

1. Tailerrean lantzeko markoa (Soziolinguistika Klusterrak proposatutakoa)
2. Tailerrean jasotako ideiak (Parte-hartzaileen ekarpenak))

Bertan jasotako ideiak ez dira, halabeharrez, Soziolinguistika Klusterraren iritziak.

1) TAILERREAN LANTZEKO MARKOA (Soziolinguistika Klusterrak proposatutakoa)

HELBURUA

Immigrazio-prozesuan aniztasunak bere lekua har dezan euskal gizarteak landu beharreko diskurtsoen ideiak proposatzea

TESTUINGURUA

- 1. Immigrazio-fenomeno ezaugarri askotarikoen bitartez (prozesu heterogeneoa), prozesu dinamikoak eta super-dibertsitatea hedatzen ari da** (kulturak, hizkuntzak, egoera sozialak, ekonomikoak eta politikoak, identitateak)
- 2. Kultura- eta hizkuntza-aniztasun handia jatorri-lurralde kopuruaren dibertsifikazio handiaren ondorioz.**
 - 10 hizkuntzen presentzia oso esanguratsua (baina ez homogeneoa), hizkuntza-aniztasun ezkutu oso handia (eta ezezaguna).
 - Etorkinen erdia gaztelania ofiziala duten herrialdeetan dute jatorria.
 - Hizkuntzen artean hierarkiak, baita gaztelaniaren aldaerei dagokienean ere.

IMMIGRAZIOAREN GIZARTERATZE-PARADIGMA

Kulturartekotasuna

- Euskararen biziberritze-prozesuan kultura- eta hizkuntza-aniztasuna ezagutzea, onarpena eta aitortzea
 1. *Bizikidetza aniztasunean*
 2. *Berdintasunaren printzipioa*
 3. *Diferentziarako eskubidearen printzipioa*
 4. *Interakzio positiboaren printzipioa*

INTEGRAZIO SOZIOLINGUISTIKOA

DISKURTSOAK

Euskararen lekua fase guztietan

Integrazio soziala/identitarioa

- Elkar guneak, aniztasuna ikusgarritasuna eta euskararen irisgarritasuna

Eskolako integrazioa

- Euskara ardatz duen hizkuntza-aniztasuneko hezkuntzan

Integrazio laborala

- Enpresen hizkuntza-aniztasunaren kudeaketa aurreratuan

Abiapuntuko integrazioa

- Harrera-protokoloetan

Iturria: Moreno Fernández 2009

- Interpelazioa

❖ Interpelazioa GOBERNUEI, GIZARTEARI, NORBANAKOARI.

2) TAILLERREAN JASOTAKO IDEIEN BILDUMA

(Parte-hartzaileen ekarpenak)

1. GAIA:

- ❖ Kulturartekotasuna marko egokia da euskararen biziberritzean migrazio fenomenoaren ondoriozko egoerari erantzuteko?
- ❖ Zein dira indarguneak eta ahuleziak?

Kulturartekotasuna immigrazioaren gaia lantzeko eta kudeatzeko marko egokia izan daiteke.

- **INDARGUNEAK**

- **Guztienganako errespetuaren lanketa**, elkarrenganako aitortza eta dibertsitatearen onarpena ezinbesteko zorua da. Onarpenik gabe zaila da bertakotze sozial arrakastatsua izatea.
- **Edozein kulturak egoera berrietara moldatzeko gaitasuna du**, elkarrenganako aitortzaz kulturak malgutasunez egokitzeko aukera dute.

• AHULEZIAK

- **Kulturartekotasuna euskara hizkuntza gutxitua den ikuspegitik** planteatu behar da. Orain arte egindako planteamenduek estatu nagusietatik egindakoak dira, ez hizkuntza minorizatuaren ikuspegitik. Abiapuntu horretatik marko teoriko propioa proposatu behar da.
- **Euskaltasunaren definizio integratzaileago** bat behar da: euskal identitatea nola mantendu ez jakitea ez da eroso. Identitate kolektiboa, hots, “gu”-a nola eraiki elkarrekin identitate hori erabat galdu gabe.
- **Kulturartekotasunaren** eta **kultura-aniztasunaren** arteko markoen gaineko gogoeta egitea eta sozializatzea interesgarria da.
- **Euskara ikasten ari direnak** identitate berrietan ere eroso senti daitezten:
 - **Euskal kulturarekin** elkartu hizkuntzekin
 - Marko horretan **Gaztelaniaz hitz egiten duten etorkinekin** bertako gaztelaniaz gain bertako kultura euskara dela erakutsi eta bi bideko onarpena egiteko lanketa oso handia behar da
- **Eremu soziolinguistikoaren arabera** egokitu behar dira diskurtsoak (eta praktikak).
 - **Eremu euskaldunetan**, adb. euskaraz ardaztutako adierazpide kulturalak euskara hutsean egiteko zailtasunen aurrean, nola jokatu?
- **Praktikara eramateko zailtasunak; kultura anitzeko jarduera hierarkikoa** (multikulturalitatekoa) betikotzeko arriskua dago.

2. INTEGRAZIO SOZIOLINGUISTIKORAKO DISKURTSORAKO IDEIAK

2.1 HASIERA FASEAN (Harrera-protokoloetan; abiapuntuan)

HARRERA-PROTOKOLOAK PRESTATZEKO

- **Diskurtso bakarra, ez;** askotarikoak behar ditugu.
- **Diskurtsoak garrantzizkoak dira, praktikak are gehiago**
 - Tokian tokira egokitu behar dira diskurtsoak eta praktikak
- **Euskararen egoeraren berri eman,** oinarrizko beste informazioarekin batera. Baita euskal kulturaren berri ere. (**Gida moduko tresna** sortu herriko eragileekin, etorkinen elkarteekin eta bitartekariekin; komunitatean sorturikoa izan behar luke).
- **Euskararen onurak erakutsi:**
 - Euskaraz hitz egiteak sozializazioa erraztuko du.
 - Bertako bizitzarako onuragarria izan dakieke.
- **Euskararekiko eskakizunak bertako guztientzat** dira, ez etorkinentzat soilik.
- **Euskararen balio afektiboak** erakutsi.
- **Etorkinen biografia linguistikoaren berri jaso:** ibilbideak, ezagutzak, hizkuntzak, ohiturak, erabilerak eta balizko aurreiritziak.
 - **Hizkuntza minorizatuak** dituzten kasuetan konplizitateak lantzea.
 - **Euskararen biziberritze-prozesuaren parte** izateko inplikatzeko.
 - **Euskararen ikasteko aukerak eta erraztasunak** ziurtatzea.

2.2 INTEGRAZIO LABORALEAN (diskurtsorako ideiak)

LAN-EREMUAN EUSKARAK DUEN BALIO ERANTSIA ERAKUTSI BEHAR DA

• IDEIA NAGUSIAK

- **Hurbileko sentimenduak garatzeko mezuak:** Euskal Herrian lan egin behar baduzu, euskaraz jakiteak hurbilduko zaitu euskaldunengana.
- **Balio ekonomikoa du euskaraz egiteak**, lan-aukerak gehiago izango duzu.
 - **Eremu publikoan lan egiteko garrantzizkoa da:** gurasoek seme-alaben geroan pentsatuz.
 - **Eremu pribatuan ere**, lan-aukerak handitzeko balio du.
- **Enpresek balioan jartzen dute:** bezeroekin harremanak euskaraz izatearen onurak, euskal bezeroa erakarriko duela adierazi
- **Enpresa batzuentzat ziztagarria izan daiteke:** lehiakortasuna eta eraginkortasuna helburu.
- **Zaintza-laneko esparruan** are balio erantsi oso inportantea du.

• ZAILTASUNAK

- **Kontuz!!! Integratzeko euskara baliagarria da teorian**, baina errealitatearekin talka egiten du. Leku asko eta askotan ez da beharrezkoa; agian, komenigarria bai baina ez beharrezkoa.
- **Baliabideak eskaini behar dira:** lanorduetan euskara ikasteko aukera eskaini.
- **Zaila da lana-ikasketak** uztartzea.
- **Euskararen erabilera hasieratik planteatu behar da, prozesu integral** baten barruan.
- **Ohar garrantzizkoa: BERTAKOEK ez badugu euskaraz egiten lana**, nola eskatuko diegu kanpotik etorritako etorkinei?

2. INTEGRAZIO SOZIOLINGUISTIKORAKO DISKURTSORAKO IDEIAK

2.3 ESKOLA INTEGRAZIOAN (diskurtsorako ideiak) (1)

ESKOLAKO EZAUGARRI BATZUK

- **Oso familia desberdinen topagunea da eskola**, eta aniztasunaren bitartekari izatea garrantzitsua da.
- **Jatorri atzerritarreko kulturak** ere ezagutu nahi ditugu.
- **Hizkuntza faktore bat da**, sozializazioan beste aniztasunak ere kontuan hartu behar dira.
- **Diskurtsoak elkarrekin eraiki behar dira**, marko amankomunak sortu behar dira.
- **Diskurtso ezberdinak behar dira, lurraldearen** arabera ñabardurak eginez.
- **EUSLE programa indartu egin behar da**; tresna arrakastatsua izan daitekeelako.
- **Ezagutza eta eduki soziolinguistikoak landu** behar dira eskoletan.
- **Eskola euskararentzat arnagunea** izaten jarrai dezan ezinbestekoa da.

2. INTEGRAZIO SOZIOLINGUISTIKORAKO DISKURTSORAKO IDEIAK

2.3 ESKOLA INTEGRAZIOAN (diskurtsorako ideiak) (1)

ESKOLAKO HARRERA-PLANAK

- **Harrera-plan orokorrak** eta ez soilik hasierarako hilabeteetarako: epe luzeagoa dutenak eta integralagoak behar dute izan.
- **Euskararen balio erantsia** azpimarratu behar da.
- **Lasaitasunerako diskurtsoa hedatu behar da:** izango dute behar besteko baliabideak arazoei aurre egiteko; horrek eskatzen du, jakina, benetan baliabideak izatea.
- **Baliabide gehiago behar dira** ikasle guztiak behar bezala euskalduntzeko. Gehiago inbertitu behar da, eta hobeki (baliabide materialak eta pertsonakoak). Hezkuntza Sailak ardura berezia du gai horretan.
- **Baliabide gehiago behar dira baita ere, eskolaz kanpoko sozializazioan.** Bitartekoak jarri behar dira inor ez dadin aisialdiko eskaintza euskaldunik gabe gelditu.
- **Ikasleen sozializazioa planifikatu eta bideratu behar da,** euskaraz eta euskal kulturaz eskolan ikasten dutena hortik kanpo ere erabil dezaten.
- **Ikasleen hizkuntza-sozializazioa eskolatik harago komunitarioa** izan behar du.

2. INTEGRAZIO SOZIOLINGUISTIKORAKO DISKURTSORAKO IDEIAK

2.3 ESKOLA INTEGRAZIOAN (diskurtsorako ideiak) (3)

•Gurasoei euskararen aldeko jarreretan eragin:

- **Gurasoak umeen bidez errealitateaz informatu** (ez soilik etorkinekin).
- **Elebitasuna elebakartasuna baino hobea da:** seme-alabak elebidun hobeto moldatuko dira etorkizunean, hezkuntzan emaitza hobeak izango dituzte.
- **Lanerako eta sozializatzeko aukera gehiago** emango dizkio, bai haurrari eta baita helduei ere euskaraz hitz egiten jakin ezkerro..
- **Haurren euskalduntzearekin batera familia osoak** sozializatu daitezke euskaratik hurbil egonez gero.

2. INTEGRAZIO SOZIOLINGUISTIKORAKO DISKURTSORAKO IDEIAK

2.4 INTEGRAZIO SOZIALEAN ETA KULTURALEAN (diskurtsorako ideiak)

- **Zurekin harremanetan** egon nahi dugu / zure lagun izan nahi dugu
- **Zure kulturaren / identitatearen** berri izan nahi dugu
- **Identitate anitzak** balioan jarri (multi-identitateak)
- **Identitate etno-kulturala** edo politikoa?
- **Hizkuntzaren funtzionalitatea eta emozioen** arloa, biak dira garrantzizkoak
- **Udalen eta elkarten edo erakunde pribatu komunitarioen arteko elkar-lana** sustatu behar da: eragiteko zeharkakotasuna egotea beharrezkoa da.
- **Eremu ezberdinen profesionalen arteko koordinazioa** behar da.
- **Eztabaidarako:**
 - Hizkuntzaren eta estatuaren arteko lotura ezinbestekoa da? Hizkuntza erdigunean jartzeko estatua ezinbestekoa da?